

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Hirugarren Hiruhilekoa 2021

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

 Lanbide

Txosten honek, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzaren eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa	4
Lanbiden erregistratutako langabezia	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzaren.....	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)	8


Testuinguru Ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) datuak, urte arteko % 5,5eko hazkundera erakusten du 2021eko hirugarren hiruhilekorako eta % 6,7ko hazkundera aurreikusten du 2021 urte osoari dagokionez

Eustaten datuen arabera, urteko hirugarren hiruhilekoan EAEko BPGaren urte arteko aldakuntza-tasa +% 5,5ekoa izan da. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokionez, EAEko BPGa %6,7 haziko da 2021 urte osoari dagokionez, eta 2022an hazkunde tasa % 6,4 izango da.


Barne-eskariaren ekarpena gorantz berrikusi da, azken kontsumoko gastuaren gorakadari eta kapital eraketa gordinari esker. Aitzitik, orain, kanpo-saldoaren banaketa aurrez aurreikusitakoa baino negatiboagoa izatea espero da.

Ekoizpen-adar guztiek ekarpen positiboa egingo diote EAEko BPGaren hazkunderari, bai 2021ean, bai 2022an.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, "Koiuntura DI-DA batean 2021-eko urria" txostena

Espainia eta Euroguneko ekonomiei dagokionez, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako egindako aurreikuspena Espainiako eta Euroguneko ekonomiei dagokionez, beheko taulan ikus daitekeenez, 2021erako Eurogunerako Consensus Forecasten urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena +% 4,8koa da, eta Espainiako Nazioarteko Diru Funtzaren aurreikuspena +% 6,2koa. 2022rako aurreikuspenak hauek dira: +% 4,4 Eurogunerako eta +%5,8 Espainiarako.




Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2021-eko urria" txostena

Munduko ekonomiaren susperraldiak aurrera jarraituko duela aurreikusten da, baina ez era berean arlo ekonomiko guztietan. Sarbidea eta Txertaketa erritmoa, birusaren aldaera berriekiko esposizioa eta laguntza ekonomikoko politikak herrialdeen artean alde handiak dituzten faktoreak dira eta, ondorioz, bilakaera ekonomikoan eragin ezberdina izango dute. Munduko hazkunde ekonomikoa dinamikoa izango da eta 2021ean eta 2022an % 5,7ra eta % 4,5era iritsiko da, hurrenez hurren. Epe laburrean, hazkundera moteldu egingo da aldaera berrien eraginatik eta horniduren murrizketengatik. Elementu horiek aldi-baterakoak dira, eta datozen hilabeteetan desegingo dira.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko % 2,3ko jaitsiera izan du urteko hirugarren hiruhilekoan; -1.110 gizonezko eta -1.757 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2021eko hirugarren hiruhilekoan (2.867 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 119.492 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera % 2,3koa izan da eta urte arteko jaitsiera % 17,5koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 1.110 pertsonatan jaitsi da gizonezkoen artean eta 1.757 emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 51.736 pertsonatan kokatu da eta 67.756 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 45-54 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-1.210); ondoren, 35-44 urte bitarteko artean (-1.125); 25-34 urte bitartean (-237); 55-64 urte bitartean (-184) eta 16-24 urte bitartean (-111).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Gipuzkoan eta Bizkaian izan dira langabetu kopuruaren jaitsierarik handienak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 2,7 bi kasuetan). Araban % 0,7 murriztu da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzerritarren kopurua % 5,4 jaitsi da eta bertako langabetu kopurua -% 1,8 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 18.371 pertsonatan kokatu da eta hirugarren kasuan 101.121 pertsonatan.


Ikasketa-mailaren arabera, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruaren jaitsiera handiena izan duen taldea oinarrizko ikasketak dituztenena izan da (-% 3,6); jarraian, Batxilergo ikasketak dituztenen taldea (-% 1,4); unibertsitateko ikasketak dituztenen taldea (-% 1,2) eta LHko ikasketak dituztenen taldea (-% 1,1).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honean, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruaren jaitsiera handiena izan duen sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Janari eta edarien zerbitzuak (-1.051); (ii) Nekazaritza, abeltzaintza (-236); eta (iii) etxebizitzak langile enplegatzaile gisa (-177). Langabetu kopurua igo den jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: (I) Hezkuntza (+208); (ii) Egoitzetako laguntza (+76); eta (iii) Motordun ibilgailuen fabrikazioa (+60).

Afiliazioa Gizarte Segurantzaren


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 966.373 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 1,2 gehiago

EAEEn 2021eko hirugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 966.373 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino % 0,8 gutxiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino % 1,3 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren % 53a gizonezkoak dira eta % 47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokionez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (% 50,1). Gipuzkoan, % 33,6koa izan

da eta Araban % 16,3koa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 4.001 pertsonatan murriztu da afiliatu kopurua; Gipuzkoan -1.623 eta Araban -2.274.


Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, hirugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (% 17,8); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (% 14,1); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 11,7). 2021eko hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: (i) Ostalaritza (+2.684); (ii) Osasun jarduerak (+2.243); eta (iii) Administrazio jarduerak (+967). Jaitsiera handiena jasan duten jardueren artean, ondorengoak daude: (i) Hezkuntza (-8.799); (ii) Administrazio Publikoa (-1.306); eta (iii) Merkataritza (-1.118).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua % 0,9 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 73.425 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua % 7,7koa da, afiliatu autoktonoena %92,3koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa % 1,1 hazi da eta emakumezkoen afiliazioa % 3,2. Lurralde Historikoei dagokionez, atzerritarren afiliazioa % 1,6 murriztu da Araban, % 5,8 hazi Gipuzkoan eta % 3,2 hazi Bizkaian.

Kontratutako pertsonak eta kontratuak

Hirugarrengo hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua % 12,4 hazi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 225.905koa izan da

2021eko hirugarrengo hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 124.695koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino % 12,4 gehiago.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen % 42,7k derrigorrezko ikasketak ditu, % 23,0k Batxilergo ikasketak, % 15,7k unibertsitate ikasketak eta % 18,0k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2021eko lehenengo hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, % 27,3ko pisuarekin; 24 baino gutxiagoko adin tarteak jarraitzen dio (% 23,3).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen % 82,9a bertakoa da eta % 17,1ak atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhileko portzentajea baino 0.7 puntu altuagoa). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (% 44,0), Europar Erkidegoak eta ez erkidegoak (% 19,5) eta Afrika iparraldekoak (% 14,9).

Biaggarrengo hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari** dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 225.905 kontratu erregistratu dira (kontratutako pertsonak baino 1.8 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 8,6 hazi da kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdina jarraitzen du: sinatutako kontratuen % 8,1 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,5 puntu baxuagoa) eta % 91,9 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik % 39,5 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,6 puntu altuagoa).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Gipuzkoan kontratuak % 14,5 hazi dira, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; Araban % 6,5 hazi da kontratazioa eta Bizkaian % 5,9 hazi da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (% 49,0; 110.630); jarraian, Gipuzkoa (% 31,4; 70.976) eta Araba (% 19,6; 44.299).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) manufaktura-industria (% 13,8); (ii) ostalaritza (% 12,3); (iii) osasun-jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 12,2) eta (iv) merkataritza (% 11,7). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (% 20,7) eta emakumezkoen artean osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (% 19,5).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa % 8,9koa izan da eta enplegu tasa % 50,9koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **enplegu tasa** % 50,9koa izan da (% 55,4 gizonezkoen kasuan eta % 46,7 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 953.600ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 9.300 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 498.900ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino % 1,3 gehiago) eta 454.700ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino % 0,6 gehiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (% 78,3), 401.000 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (% 23,8), 44.400 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 25 urte azpikoena (+% 5,5).

Lurralde Historikoei dagokionez, Araba izan da enplegu tasarik handiena izan duena (% 53,1), jarraian Gipuzkoa (% 52,1) eta Bizkaia (% 49,5). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban erregistratu da hazkunde handiena (+% 2,1)

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (% 72,3). Ondoren, Industria sektorea (% 21,2), Eraikuntza sektorea (% 5,7) eta Lehen sektorea (% 0,8).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen % 69,3k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta % 29,8k aldi baterako kontratuak. **Kontratuen partzialtasunari** dagokionez, kontratuen % 80,1 lanaldi osoak izan dira eta % 19,9 lanaldi partzialekoak.

Hirugarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia tasa** % 8,9koa izan da (% 8,8 gizonezkoen artean eta % 8,9 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 92.700 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 15.900 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan % 7,4 murriztu da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan % 8,4 murriztu da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (% 6,9); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (% 10,1) eta 16-24 urte bitarteko taldea (% 18,3). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan murrizketa handiena izan duen taldea 24 urte azpikoena izan da (-% 29,8); 45 urte gorako taldean % 7,1 murriztu da soilik langabetu kopurua.

Lurralde Historikoei dagokionez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (% 7,0), jarraian Araba (% 9,2) eta Bizkaia (% 9,9). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua lurralde guztietan murriztu da; gehien Araban murriztu da (-% 17,2).

Ikasketa – mailaren arabera, langabetuen % 44,9k hirugarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, % 28,5k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, % 26,8k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen % 76,7 bertakoak dira, atzeritarrak, beraz, % 23,3.